

SORMEN ASKATASUNA JO-MUGAN ESPAINIAKO ESTATUAN

Pablo Hasél espetxeratu berritan, zenbait legelari, artista eta giza eskubideen aldeko erakunderekin aztertu dugu Espainiako Zigor Kodea gogortzeak musikan eta beste diziplina batzuetan duen eragina.

 JESÚS RODRÍGUEZ / GEMMA GARCIA

Directa





Hasélen epaia guztiz neurrigabea da, eta Espainiako gizarteari zenbait galdera serio planteatzen dizkio monarkiarekin duen harreman zaharkituari buruz. Jainkoa, erregea edo beste edozein agintari kritikatzeari ezinbesteko baldintza da demokrazia osasuntsu batean. Marita Muukkonen eta Ivor Stodolskyren hitzak dira, Arriskuan Dauden Artistak izeneko nazioarteko erakundeko zuzendariak dira biak. Berlindik eta Helsinkitik, sei urte baino gehiago dira monitorizatzen dituztela Espainiako Estatuko eskubide-urraketak, batez ere hazi direnak mozal legea ezarri eta Zigor Kodea gogortu zutenetik, terrorismoa goratzearen delituei dagokienez. Beren zereginetako bat da jazarpena pairatzen duten artistei erbeste segurura ihes egiten laguntzea, diktaduretatik zein demokrazia formaletatik.

Aterpea, erbestea edo klandestinitatea ez dira hitz ezezagunak Stodolskyren familiaren historian. Duela 80 urte, 1940ko irailaren 25ean, bere aitonaaren arreba Lisa Fittko arduratu zen Walter Benjamin gidatzeaz Banyulsetik Portboua, Ipar Kataluniatik Hego Kataluniara, oinez, Cervera de la Marenda mendi harritsuetan barrera. Nazismotik ihesean zen Benjamin eta Portugalera iritsi nahi zuen, handik New Yorkera joateko. Agintari frankistek Portboun atzeman zuten, França Hotelean giltzapetu zuten eta Berlinera deportatzearekin mehatxu egin zioten. Biharamun goizean gorpu aurkitu zuten gelan, ustez berak morfina dosi handi bat hartu ostean, bizia kentzeko.

Arriskuan Dauden Artistak elkartetik salatu dute, "erregimenek COVID-19ren krisia baliatzen dute disidentzia are gehiago zapaltzeko, baita askatasun artistikoak errepresmitzeko ere. Ondorioz, artisten arriskuak areagotu egin dira". Paradoxikoki, Pablo Hasél rap abeslariaren kasua etxeratze-agindu egoera betean leheratu da, tradizioz erregimen diktatorialekin lotzen den egoera da. CNNko, Reuterseko eta Al-Jazeerako kameerek Kataluniako kaleetan gertatu dena jaso dute berriro ere, eta Espainiako Estatuaz mintzatu dira 2017ko urriaren 1ean edo 2019ko udazkenean egin zuten norabide berean, argi eta

garbi aipatuz "Poliziaren indarkeria", "oinarrizko eskubideen urraketa", "espetxeratzeak".

Laura Huerga, *Tú, calla!* (Zu, ixo!) liburuaren egileetako batek eta PEN klubaren Kataluniako Idazle Jazarrien Batzordeko kideak, atzera begiratu du adi: "Duela zenbait urte, mezu eta adierazpen berdinak zentsuratzen saiatzen ziren. Asmoa bazeukaten, kontua da orain tresna legal batzuk gehiago dauzkatala: Mozal Legeak eta Zigor Kodearen erreformak errepresioa eraginkorrago egin dute".

Espainiako Estatuan, oro har, azken bost urteetan 100.000 inguru izan dira Mozal Legearen ondorioz jarritako zigorrak, eta Zigor Kodea eskuetan, hamalau artistari inposatu dizkiote kartzela-zigorrak, Nazio Batuen aholkulari den askatasun artistikoaren defentsarako Freemuse nazioarteko erakundearen arabera. Hasél, Valtòny eta La Insurgencia taldeko hamabi kideak. Guztiak dira musikariak eta terrorismoa goratzea egotzi diete.

Hori ahalbidetzen duen legediaz gain, Laia Serra abokatu penalistak justiziaren joera ideologikoan jarri du arreta, eta iruditzen zaio "oso agerikoa dela hegemoniko ez diren helburu, disidentzia edo kritikak zentsuratzeko edo mugatzeko erabiltzen dela zuzenbidea boterearen tresna gisa. Espainiako Estatuan, azken urteotan, jendea zigortu dute ondorengoak egotzita, besteak beste: adierazpen-delituak, erlijio-sentimenduen aurka egitea, terrorismoa goratzea eta gorroto-delituak. Hala ere, betiko kereila eta irainek balio jakin batzuen defentsarekin dute zerikusia". José Miguel Arenas Mallorcako rap abeslaria, Valtòny gisa ezagunagoa, ados dago. Zigortu dituzten hamalau artista disidenteetako bat da, eta 2018an Belgikara erbesteratu behar izan zuen hiru urte eta erdi giltzapean ez egoteko: "Espainian adierazpen askatasuna badago, ez dagoena askatasun ideologikoa da. [Carles] Puigdemont mehatxa dezakezu, bere aurpegia duen txotxongilo bat fusilatu, 26 milioi gorri hilko zenituzkeela esan edo Katalunia bonbardatu beharko litzatekeela... Egon lasai, ez zaizu ezer ere gertatuko. Beraz, adierazpen askatasuna batzuentzat baino ez da, epaileen ideologia partekatzen duten horientzat".

Horregatik uste du Serrak mugak ez lituzkeela soilik pautu juridiko batek finkatu behar, edo epailetzaren adostasun batek, baizik eta “ikuspegi demokratikoz planteatutako eztabaida sozial batek”. Honela dio: “Gizarte bakoitzak, bere balio, historia eta berezitasunak kontutan hartuta, muga horiek non jarri behar diren adostu beharko luke. Eta Espainiako Estatuan eztabaida hori ez da egin, eta beraz, mugak jartzea epaileen esku dago, egun balio kontserbadoreak direnekin lotuta eta botere-estamentuen eta *statu quo*-aren defentsarekin zerikusia dute”.

NAZIOARTEKO ITUNAK BETE GABE

“Espainia behin eta berriz ari da urratzen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 19. artikulua [Nazio Batuen Batzar Orokorra onartu zuen], Zigor Kodean artikulua asko erreformatu behar bailituzke”, dio Thais Bonilla Novact-eko kideak eta Defender a Quien Defiende plataformak eta Kataluniako Giza Eskubideen Institutuak atera duten txosten sakonaren egileak. Dokumentuan Espainiako agintariei egindako hamar gomendioetatik bakarra aplikatu dute, 9. puntua, eta bi urteko atzerapenarekin: gogoratzeko eta ikusteko moduko zenbaki bat agerian eramatea istiluen aurkako poliziek. Zenbaki hori Esquadra Mossoek [eta ertzainek] ere jarri dute kaskoan eta uniformean, nahiz eta eskopetari batzuek modu irregularran ezkutatu babes jantziekin.

Espainiako agintarien utzikeria behin baino gehiagotan emendatu dute Europako auzitegiek. Bonillak nabarmendu duenez, “Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Estatua desautorizatu izan du txio edo sare sozialetako mezuak zigortzeagatik, Agustín Toranzo Gomezen kasuan bezala, bi poliziarri torturak leporatzeagatik zigortu baitzuten,



@GIRALTM

NO CALLAREM. Bartzelonako Modelo espetxe zaharrean zentsuraren aurkako jaialdia egin zuten, jazarpena pairatzen ari ziren artistei babes adierazteaz gain, politikoki ez zutela atzera egingo berresteko.

edota monarkiari egindako irainen kasuagatik, Espainiari esanez horrek ez lukeela Zigor Kodean egon behar”. Hala ere, “Giza Eskubideen Europako Auzitegia beti iristen da berandu eta kalte-tutako pertsonen bizitza dagoeneko zigortua izaten da”, deitoratu du Bonillak. “Herrialde bakoitzeko barne auzitegiek funtzionatzea beharrezkoa da”.

Urteak dira Amnistia Internazionale, giza eskubideen aldeko beste hainbat erakunderekin batera, Espainiako Zigor Kodearen erreforma eskatzen ari dela, giza eskubideen nazioarteko estandarrekin bateratzeko. “Indarkeria zuzenean bultzatzen duten adierazpenak soilik zigortzera egin behar luke aldaketak bidea. Ezin da inor auzipetu sare sozialen bidez adierazteagatik edo abestegatik norbaiti desatsegina, eskandalagarria edo iraingarria iruditzen zaion zerbait”, dio Dani Vilaro Al-ko Kataluniako kideak.

Haséli, hain zuzen ere, terrorismoa goratzea eta monarkia iraintzea egotzi dizkiote, nazioarteko luparen begiradapean dauden kontuak. 2011n ETak armak utzi zituenetik, 578. artikulua aplikatuz –terrorismoa goratzea– ezarritako zigorrak biderkatu egin dira. Laia Serrarentzat adibide ona da, argi erakusten

du Espainiako epailetzak ez dituela kontuan hartzen nazioartean funtsezkoak diren elementuak. 578. artikulua intenzionalitateaz eta honen testuinguruaz ari da, Estrasburgori iruditzen baitzaio “interpretaziorako gakoa” dela. “Testuingurua aldatu egin da eta, beraz, diskurtso horien arriskua arindu egin da, baina epaileek ez dute hori kontuan hartzen”, gaineratu du abokatuak.

Aldi berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hiru aldiz zigortu du Espainiako Estatua monarkiaren aurkako irainen delitua aplikatzeagatik, 491. artikuluan jaso. Vilaróren ustez, ezinbestekoa da figura publikoak iraintzea edo horiei buruz ezer esatea debekatzen duen edozein artikulua ezabatzea: “Figura publikoak izate hutsagatik, gainontzeko herritarrek baino askoz kritika gehiago onartu behar dituztela dio Europako legeriak”.

ZENTSURA ETA AUTOZENTSURA

“Aldizkariak, liburuak eta argitalpenak, txioak eta abestiak bahitzea askatasun indibidual eta sortzailearen esparruan eginiko esku sartze kezkarria da”. Roc Blackblock grafitigileak badaki zertaz ari den: Espainiako Errege ohi Juan Carlos I.aren aurpegiarekin murala marraz-

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

tu zuen “Lapurra” hitza goiburu zuela, eta Bartzelonako Udaltzaingoak zentsuratu egin zion. Bi aste geroago berregin egin zuen, eta Francoren eta egungo Espainiako estatuburu Felipe VI.aren aurpegiak gehitu zizkion alde banatan.

Muralista ezagunak ohartarazi du autozentsura pixkanaka sartzen ari dela artearen munduan: “Gero eta modu sotilagoan agertzen da, baliteke ez modu kontzientean izatea. Pertsona sortzaile orok etengabe hausnartzen du nola jasoko lukeen epaiketa, iritzi edo halako polemika bat, eta horrek nola itxi lekizkiokeen ateak”. Artearen munduan bizi den prekarietateak, Roc Blackblockek gaineratu duenez, okertu egiten du egoera: “Gehienetan, lerro batzuk ez gainditzeko diskurtsoak egokitzea erabakitzen da, ez koskarik egitea jaten ematen dizun eskuari edo ateak ez ixteagatik”. Berak, baina, kontrakoa egin duela dio: “Beti pentsatu izan dut nahia-go dudala argi posizionatu eta zenbait bezero edo enkargu egin gabe geratu, horrek hurbiltzen bainau nire pentsatzeko moduarekin gertuago dagoen jendearengana”.

Kataluniako Musikari Aktibisten Sindikatuko bozeramaile Pep Tarradasek Pablo Hasélen kasua kokatzen du “azken urteetan areagotu den errepresio testuinguru soziopolitikoan”. Estatua-ren oinarritzko zutabeak ukitzen direnean, oinarritzko eskubideak ez direla errespetatzen gauza jakina dela dio. Nabarmendu du Lleidako rap abeslariaren espetxeratzea ez dela kasu isolatua, “Cesar Strawberry zigortu zuten, Valtònyc erbestean da, La Insurgenciako hamabi abeslari kartzela zigorra ezarri zieten, Cassandra Veraren kasua [Carrero Blancori buruzko txioengatik]... Adierazpen askatasunaren aurkako izugarritzko gurutzada bizitzen ari gara”. Musikaren esparruan, abestien letrez gain, kontzertuak ere zentsuratu izan dituzte arrazoi politikoengatik. Tarradasek usatez, oso garrantzitsua da *No Callarem!* plataforma gisako mugimenduak existentzia (2017ko martxoan sortu zen), “ez gaitezen autozentsuran erori”.

2019ko bere txostenean, Freemu-sek ohartarazi du Espainiako Estatua zentsuraren rankingean buru dela, Iranen eta Turkiaren aurretik. “Adierazpen artistikoaren askatasunaren aurka neurri antiterroristak bidegabe erabili dituzten kasuen % 31ren erantzule da Espainiako Estatua. Gizateriaren alderdi guztiei buruz hausnartzen duten lan



ADRIANA PIMENTEL



ANDREU ESTEBAN

PROTESTAK. Goiko irudian Pablo Hasélen bizitoki Lleida. Hiri hau musikariaren atxilotetaren aurkako protesten epizentroetako bat izan zen eta herritarrak espetxeraino iritsi ziren, argazkian ikus daitekeenez. Bigarren argazkian, Valentzian, Espainiako Polizia manifestariak jipoitzen. Ez dira gutxi izan protestaldi hau adierazpen askatasunetik harago, gaur egungo gazteriaren haserrearen erakusle gisa interpretatu dutenak.

polemikoak kritikatu, probokatu eta aurkezteko aukera izan behar lukete artistek, auzitegiek mehatxatu gabe”, diote Arriskuan Dauden Artisten Berlingo egoitzatik, eta berretsi dute Espainiako Estatuko sortzaileei erbestealdi segurua bilatzen laguntzeko borondatea dutela. Belgikatik, Valtònycek aitortu

du mehatxuak fruituak lortzen dituela: “Askok idatziko ez diren abestiak, bidaliko ez diren txioak, antzeztuko ez diren antzezlanak. Niri musikari askok helarazi dit borboidarren aurkako abestiak egitea gustatuko litzaiekeela, baina ondorioen beldur direla. Eta hori oso tristea da”. ●



“ESPAINIA NIRE AMA BADA, NI PUTASEMEA NAIZ”

Suso Vaamonde

1980

Espainiaz hitz egiten didatenean, barne liskarra izaten dut beti. Izan ere, Espainia nire ama bada, ni putasemea naiz”. Horixe da Suso Vaamonde abeslari galiziarrek 1979ko erreztaldi antinuklear batean abestu zuen estrofa, Pontevedrako Ferrería plazan. Pontevedrako Auzitegiak ikerketa ireki eta sei urte eta egun bateko espetxe zigorra jarri zion, “nazio espainiarrari irain egitea publizitatez” egotzita. 1980an epaia publiko egin zutenean, Vaamonde erbesteratu egin zen, lehenik Europako beste herrialde batera eta ondoren Venezuelara. Abeslaria bere herrira lau urte geroago itzuli zen, eta bere burua entregatu zuen. 46 egun egin zituen Ourenseko espetxean PSOEn gobernuak indultatu aurretik.



“JORGE CAMPOSEK SUNTSIPEN NUKLEARREKO LEHERGAILU BAT MEREZI DU”

Valtònic

2012

Garai hartan Círculo Balear fundazioko presidente eta gaur egun Balear uharteetan Vox alderdiko erreferente den Jorge Camposek salaketa jarri zion Josep Miquel Arenasen aurka (Valtònic) eta Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitu zuten. Monarkiaren aurkako irain larriak eta *Circo balear* edo *El rei Borbó* abestietan terrorismoa goratzea egotzita zigortu zuten 2017ko otsailean. Ondorengo esateagatik jazarri zuten, besteak beste: “Marivent okupatuko dugu [Espainiako erret familiak udako oporrak pasatzeko erabiltzen duen jauregia] kalaxnikov batekin”. Espainiako Auzitegi Gorenak 2018ko otsaileko epaia berretsi zuen. Valtònic ez zen espetxera aurkeztu eta aurrerago, Belgikan erbesteratu zela jakinarazi zuen. Gant hiriko epaitegi batek Espainiako justiziak eginiko estradizio eskaera atzera bota zuen. Kasua Europako Justizia Epaitegiek zer erabaki hartuko duten zain dago, eta Belgikako fiskaltzak apelatu egin du auzia.



“(ENRIQUE RODRÍGUEZ GALINDO) USTELKERIAREN ARDURADUNA”

Negu Gorriak

1993

1990 eta 1991 urteetan *Egin*, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Diario 16* egunkarietan Guardia Zibila Euskal Herriko nar-kotrafikoaren trama batekin lotzen zuten zenbait informazio argitaratu ziren. Negu Gorriak taldeak artikulua periodistiko horiek baliatu zituen *Ustelkeria* abestiaren letra egiteko 1991. urtean. 1993an, Enrique Rodríguez Galindok –Guardia Zibileko teniente koronela, 1980 eta 1995 bitartean Gipuzkoako Komandantziako arduradun nagusia– taldearen aurkako salaketa jarri zuen “ohorearen aurkako delitua eta difamazioa” egotzita. Epaitegiek hasiera batean bere salaketa atzera bota zuten, baina 1995. urtean, taldea milioi askoko indemnizazioa ordaintzera zigortu zuten. 2000. urtean, Espainiako Epaitegi Gorenak musika taldea absolbitu zuen kargu guztietatik. Hurrengo urtean, epaitegi berak Rodríguez Galindo 75 urteko espetxera zigortu zuen 1983an Joxean Lasa eta Joxi Zabala bahitu, torturatu eta hiltzea egotzita. Lau besterik ez zituen bete.



“NOR IZENDATU ZUEN OINORDEKO DIKTADORE NAZKAGARRI BATEK?”

Ardor de Estómago

2012

Nork hil zuen bere anaia ehiza-eskopetarekin? Nork egin zuen tiro egoera arraro-arraroetan? Nor izendatu zuen oinordeko diktadore nazkagarri batek? Nor zen elefante zuria, Francorekin ondo konpontzen zena? Juan Carlos, errege putasemea”. Horrela dio Ardur de Estómago punk rock talde gaztearen *Una història real* abestiak, Segoviako Udalak argitaratutako eta ondoren erretiratutako disko batean. Monarkiaren aurkako irainak egotzi zizkieten eta hiru gazteen defentsak esan zuen abesti hori ez zutela sekula abestu, muntaia periodistikoa izan zela dena eta ezin zela frogatu beraiek zirela abestiarren egileak. Santiago Abascalek sortutako Defensa de la Nación Española fundazioa izan zen akusazio popularra eta 388.000 euroko isuna eskatu zioten taldeko kide bakoitzari, fiskaltzak 1.800 euro bakoitzari. Azkenean, 900 euroko isuna jarri zieten.



“BOTEREAREN UZKI-MIAZKATZAILEA, KORONEL SARRASKIJALEA, LEHER ZAITEZ ZERRIA!”

Soziedad Alkoholika

2004

AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarteak Soziedad Alkoholika talde arabarraren aurkako salaketa jarri zuen 2004an *Explota Zerdo* eta *Síndrome del Norte* abestietan terrorismoa goratu zutela egotzita. Musika talde baten aurka gisa hone-tako salaketa bat jarri zen lehen aldietakoa izan zen. Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Baltasar Garzónék birritan artxibatu zuen kausa. AVTren zenbait errekurtsoren ostean, 2006an, Auzitegi Nazionalako beste epaile batek, Fernando Grande-Marlas-kak –egungo Espainiako Barne Ministroak– prozesua berrireki zuen. Azkenik, kideek absolbituta amaitu zuten. PP alderdiaren boikot kanpaina baten une gorena izan zen salaketa, zenbait kontzertu betatu eta El Corte Inglés merkatalguneetatik taldearen diskoak epe baterako kentzea lortu ostean. Soziedad Alkoholikaren aurkako errepresioak epaiketa ostean ere jarraitu zuen.



“ZENBATEK JARRAITU BEHAR LUKETE CARRERO BLANCOREN HEGALDIA?”

César Strawberry

2015

Def Con Dos rap metal taldeko abeslaria 2015eko maiatzean atxilotu zuten, Armiarma III operazioan, sare so-zialetan terrorismoaren goratzea egotzita. Twitterren argitaratutako sei txiogatik ikertu zuten eta bertan PPren eta faxismoaren arteko loturak salatzen zituen, ETaren borroka armatuaren zenbait gertaerari aipamenak eginez. Lehen instantzian, Auzitegi Nazionalak kausa artxibatu zuen. Aurrerago, fiskaltzak berrireki egin zion ikerketa, eta 2016ko uztaillean epaitu zutenean azkenik, absolbitu egin zuten. Fiskalaren erre-kurtso batek kasua Epaitegi Gorenera eraman zuen, eta urte-bete geroago Stawberry zigortu zuen urtebeteko espetxeal-diarekin, biktimak umiliatu zituelakoan. Ondoren, Konstituzio Epaitegiak Strawberryren defentsak jarritako babes eskeko errekurtsua kontutan hartu eta epaia baliorik gabe utzi zuen.




“ERREGEAK LURPEAN BEHAR LUKE”

Moises Rivas Leiva

2007

Beste zenbait adierazpenekin batera, Poetas de la Calle rap taldeko abeslariak borboidarren familia “parasito” gisa definitu zuen 2005ean Kanariar Uharteetako Fuerteventuran eginiko kontzertu batean. Espainiako Poliziak aritzean “diktadore” eta “torturatzailer” hitzak erabili zituela egotzi zio-ten. Epaietan artistak adierazi zuen entzun ziren irainak zu-zenean scracheatzeko pintxatu zuten Doble V taldearen disko batetik zetozela, rap musikak erabiltzen duen musika efektua lortzeko. Epailerek baina, salaketa jarri zuen Guardia Zibileko sargentuaren argumentuak hartu zituzten soilik kontutan, eta ebatzi zuten baietz, “iraintzeko eta bereiziki difamatzeko asmoa” zuela abeslariak. Ministerio publikoak, Luis Barroso fiskalak ordezkaturak, 14.400 euroko isuna eskatu zuen bere aurka monarkia eta Guardia Zibila iraintzeagatik. Leyvaren “aukera ekonomikoak” kontutan hartuta, Auzitegi Nazionalak 1.440 eurora jaitsi zion zigorra.



“FELIÇ, FELIÇ, FELIÇ, HERRIKO PLAZAN HILARAZTEN DUTENEAN LETIZIA ORTIZ”

La Insurgencia

2016

Internazionalismoa eta kultura iraultzailea bultza nahi di-tuen kolektibo musikala”. La Insurgenciak bere burua ho-rrela definitzen du eta 2012. urtean sortu zuten YouTubeko kanal baten inguruan. 2016an Espainiako Poliziak kolekti-boko hamahiru kide atxilotu zituen –beraierako bat 18 urtez azpikoa– ustez terrorismoa goratzea eta Espainiako erakun-deen aurkako delituak egotzita, YouTube argitaratu zituzten zenbait kantengatik. 2017ko abenduan hamabi pertsona epai-tu zituzten eta bi urte eta egun bateko espetxe zigorra jarri zieten. Hurrengo urteko martxoan auzitegi berak zigorrak sei hilabetera jaitsi zizkien, beren letretan aipatzen zuten GRAPO erakundea dagoeneko ez zegoela aktibo argudiatuta.